



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### OFIZIALORDEA ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO LEHIAKETAREN IZENDAPEN PROPOSAMENA

2019ko abenduaren 20ko tokiko gobernu batzarrak, besteak beste, erabaki zuen Udaltzainen ofizialorde lanpostua zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko lehiaketarako oinarriak onartzea, baita hautaketa-prozesuari dagokion deialdia egitea.

Lehiaketarako oinarriak, eta deialdia bera, udaleko web orrian argitaratu da eta 2020ko urtarrilaren 9ko GAOn; eta eskabideak aurkezteko epea urtarrilaren 31n bukatu zen.

Alkatearen 95/2020 Dekretuz ebatzi zen hautaketa-batzordeko kideak izendatzea, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda hau onartzea, ohartaraziz azken horren kontra 5 egun naturaleko epean alegaziorik aurkeztu ezean, automatikoki behin betikotzat joko zela.

Behin behineko onartuen eta baztertuen zerrendari ez zaizkio alegaziorik aurkeztu.

Hautaketa-batzorde honek horrela erabakita, lehiaketa honetan aurreikusia zegoen elkarrizketa otsailaren 13an egin zen. Halaber, egun horretan partehartzaile bakarraren merituak baloratu ziren, eta puntuazio hau eman :

1.- Esperientzia.....	0,4 puntu
2.- Prestakuntza osagarria.....	1,20 puntu
3.- Araututako prestazioa .....	0 puntu
4.- Euskarazko C2 tituluaren jabe izatea.....	0 puntu
5.- Elkarrizketa.....	3.50
 Guztira.....	 5,10

Aipatu guztiagatik, ofizialorde lanpostua zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko lehiaketako hautaketa batzordeak,

#### ERABAKI DU

**Lehena.**- Aitorren aldeko izendapen-proposamena egitea.

**Bigarrena.**- Ebazpen proposamen hau argitaratzea Astigarragako Udaleko web orrian eta udal iragarki taulan, eta 10 egun balioduneko epea ematea lehiaketan parte hartu dutenek erreklamazioak aurkezteko.

Astigarragan, 2020ko otsailaren 25ean.

Xabier Urdangarin Lasa  
hautaketa-batzordeko lehendakaria